

**2009KO URRIAREN 30EAN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeita hamarra

HILABETEA: Urria

URTEA: Bi mila eta bederatz

HASIERAKO ORDUA: Goizeko hamarrak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe
Fernando Boada González
Jon Kortaberria Lasa
Begoña Lasa Royuela
Julio Herreros Serna

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2009ko uztailaren 24ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute akta zeresanik ez dagoelako.

2.- LUDOTEKA ZERBITZUA. Kontratua luzatzea.
Ondorengo ezagutzera ematen da:

“2006ko irailaren 13an egindako Gobernu Batzordeak erabaki zuen Maialen Hernandez Irastorza eta Eider Garmendia Urretabizkaia, PUXTARRI AISI TALDEA osatzen duen ondasun erkidegoari, Berritxu eta Txelotxe ludoteka eta gaztegune zerbitzuen kudeaketa esleitzea.

Kontratua ikasturte-baterako egin bazen ere, hau da, 2006ko irailaren 18tik 2007ko ekainaren 30a bitarte, bere garaian onartutako baldintza pleguaren arabera luzagarria da eta gehienez ere hiru urtean luzatu ahal izango da. Kontratua amaituta dagoenez, Gobernu Batzordeak 2007ko irailaren 18an, euskarazko teknikariak aldeko txostena eginda, erabaki zuen kontratua beste urtebeterako luzatzea, aurreko kontratuaren prezioei PKI aplikatuz. Kontratu honen epea amaitu eta gero, berriro ere euskarazko teknikariak 2008ko irailaren 12ko datarekin luzatzearen aldeko txostena eman zuen eta 2008ko irailaren 16an Gobernu Batzordeak hori onartu zuen, hain zuzen ere. Orain, euskarako teknikariak horrela proposatuta, azken aldiz luzatzea proposatu da. Kontratuaren eragina, 2009ko irailaren 15etik 2010eko ekainaren 30a bitartekoa

izango da eta KIP 0,1 jaitsi denez, prezioa mantentzea erabaki da, jaitsiera aplikatzeak ez duelako ordaindu behar den kopurua nabarmen mantentzen.

Horretaz aparte adierazi beharra dago, PUXTARRI AISIALDI TALDEAn aldaketa izan dela, taldea osatzen duenarekiko. Horren berri, 2009ko otsailaren 19ko idatziaren bitartez eman zen adieraziz, lehen taldearen kideak Maialen Hernandez Irastorza eta Eider Garmendia Urretabizkaia, ba ziren ere, orain Maialen Hernandez Irastorza eta Iker Insausti Tolosa direla.

Horren ondorioz, aho batez ondorengo erabaki da:

Lehenik. PUXTARRI AISIALDI TALDEAK, Berritsu eta Txelotxe ludoteken nahiz gaztegunearen zerbitzuak emateko, Beasaingo Udalarekin sinatua duen kontratua luzatzea, iraupena 2009ko irailaren 15etik 2010eko ekainaren 30era bitarte izango delarik.

Bigarren. Beasaingo Udalak PUXTARRI AISIALDI TALDEAri aipatutako zerbitzua emateagatik, 78.623,29 € ordainduko dio.

Hirugarren. Beste estipulazioak ez dira aldatzen eta horren ondorioz, indarrean jarraitzen dute.”

3.- ERABILPEN LAGAPENA. USUPARTRABE Elkarteari kamioi-aparkalekuaren erabilpen-lagapena

Ezagutzera eman da, USUPARTRABE Elkartearekin sinatzea proposatzen den hitzarmena:

“Beasainen bi mila bederatziko azaroaren bian.

BILDURIK

Alde batetik, DESIDERIO FIDALGO BARANDIARAN jauna 72.431.818-B NA duena eta Beasainen Arana kaleko 21ean helbideratua, G 75010876 IFK duen ASOCIACIÓN DE USUARIOS PARKING TRANSPORTISTAS DE BEASAIN (USUPARTRABE)ren izenean.

Beste Alde batetik, , PATXI PLAZAOLA MUGURUZA, Beasaingo Alkate-Lehendakaria. Ekintza hau burutzeko eskuduntza Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen duen Legearen 21,1b) artikulua eta 2009ko urriaren 30ean Gobernu Batzordeak egindako bileran hartutako erabakiak ematen dio.

AURREKARIAK

I.- 2009ko irailean, ASOCIACIÓN DE USUARIOS PARKING TRANSPORTISTAS DE BEASAIN (USUPARTRABE)ren izenean irabazi asmorik gabeko Elkarte eratu zen. Helbidea, Beasaingo Zumadi poligonoa da eta IFK ondorengoa da: G 75010876.

Elkarte horren helburua, kamioien aparkalekua erabiltzea eta kudeatzea da.

II.- Beasaingo kamioizaleek egindako eskaeraren aurrean, Udalak orain dela gutxi, Zumadi poligonoan (33 Area) kamioientzat aparkaleku bat egokitu zuen Elkarte horri bere erabilera lagatzeko.

III.- Bi aldeek elkarri kontratuak egiteko eta obligazioak beren gain hartzeko ahalmena, aitortzen diote eta, kontratu hau idatzi dute ondorengo

ESTIPULAZIOEKIN

Lehenik. Beasaingo Udalak “USUPARTRABE”, Elkarteari Zumadi poligonoan dagoen kamioiak aparkatzeko egokitu den eremuaren erabilera lagatzen dio, helburu horretarako.

Bigarren. Erabilpen-lagapena prekarioan eta dohainik egiten da, bost urterako. Beste bost urterako luzatu ahal izango da, baina edozein kasutan ere, baliorik gabe geldituko da, planeamendua aldatzearen ondorioz, eremu horretan beste zerbait exekutatu beharko balitz.

“USUPARTRABE”, Elkarteak bere aldetik ezin izango du inolaz ere, erabilpen eskubide hori eskualdatu.

Hirugarren. Kudeaketa, garbiketa eta mantentze gastuak, ohizkoak nahiz apartekoak, energia elektrikoak ezik, “USUPARTRABE” Elkartearen kontura izango dira.

Laugarren. Elkartearen kontura joango da baita ere, kamioiak sartzeko eta irteteko langa jartzea. Aparkalekua bakarrik erabili ahal izango dute, Beasaingo Udalaren zergadun direnak, trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga kontzeptuan.

Elkarteak ekitaldi bakoitzaren hasieran, aparkaleku-erabiltzaileen zerrenda aurkeztu beharko du eta edozein momentutan udaltzainek behar den kontrola eramateko, aparkalekura sartzeko oztoporik ez dute izango.

Bosgarren. Ez ohizko eta ekintza puntualetako, aparkalekurako egokitu den eremua, baldintza onetan Udalaren esku geldituko da, beti ere Toki Entitateak alde zuzenetik eskatzen bada.

Seigarren. Dokumentu hau baliorik gabe geldituko da kasu hauetan:

- 1.- Lagapenaren epea igaro ondoren eta bigarren estipulazioan adierazitako xehetasunagatik.
- 2.- Elkartea desegiten bada.
- 3.- Lagapenaren xedea betetzen ez bada.

Zazpigarren. Seinaliztapen bakarren egin behar bada, Hizkuntz Politikako irizpideak jarraituz, ekintzak eta publizitatea ere, euskaraz izaten saiatuko dira eta horrela ez denean, euskarak lehentasuna izango du, letraren tamaina, iragarkien denbora, e.a.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

4.- INFORMAZIOA. Manufacturas Olanen eraikina

Ezagutzera eman da 2009ko irailaren 15ean, Alkateak emandako ebazpena:

“Gaia: 4 Hirigintza Areako 4.1 unitate egikaritzeko errepartzelazio proiektutik ondorioztatutako 8. lursaila (Manufacturas Olanen-en pabiloia) onartzea.

AURREKARIAK

I.- 2002ko abenduaren 20ko datarekin Udalaren, Hermanas Olanen, S.A. eta Promotora del Goyerri, S.A.ren artean hitzarmena sinatu zen eta beste konpromiso batzuen artean ondorengo jaso zen: Manufacturas Olanen, S.A,k Promotora del Goyerri, S.A.ren alde jarduera garatzen den pabiloia jarriko zuela, honek bere aldetik Udalarari lagatzeko, 4 Hirigintza Arearen aprobetxamendu urbanistikoaren %10a ordaintzeko.

II.- 2003ko azaroaren 19ko datarekin onartutako 4 Hirigintza Areako 4.1 unitate egikaritzeko errepartzelazio proiektuan, jarraian deskribatzen den, ondorioztatutako 8. lursaila, hain zuzen ere, 2048 Tomoan, 226 Liburuan, 78 Orrialdean inskribatuta dagoen eta 12.653 finka, PROMOTORA DEL GOYERRI, S.A.ri esleitu zitzaion.

Parcela edificada, señalada con la referencia P8 de la relación de parcelas resultantes del Proyecto de Compensación para la Unidad de Ejecución UE 4.1 del AU 4, en relación con el Estudio de Detalle realizado.

Tiene forma poligonal y su superficie, según reciente medición pericial, es de 926 m². En la Parcela P8, se ubica y se asienta el cuerpo principal del pabellón industrial y su torre, con una superficie de planta coincidente con la indicada para la parcela, es decir, 926m². El perfil máximo del edificio, ya existente, es de Planta Baja + 3P, y su uso será el de equipamiento. Linda:

Norte: *Terrenos de cesión para dominio público destinados a espacios libres peatonales y parcela número 5.*

Sur: *Terrenos de cesión para dominio público destinados a espacios libres peatonales y zonas verdes.*

Este: *Terrenos de cesión para dominio público destinados a espacios libres peatonales a los largo de la calle J.M. Iturrioz.*

Oeste: *Terrenos de cesión para dominio público destinados a zonas verdes.*

La descripción registral de este edificio es la siguiente:

La fábrica propiamente dicha, y que ya aparecía inmatriculada como formando parte de la finca número 435 triplicado, una de las agrupadas, y que está configurada por un edificio de nueva planta compuesto de dos cuartos y terraza o muelle. El primer cuerpo situado al lado Este, consta de planta baja con una superficie de novecientos metros cuadrados, un primer piso de igual dimensión al que da acceso una escalera central, segundo piso con terraza en toda su longitud y diez metros de fondo, quedando este segundo piso con una planta cubierta de cuatrocientos cincuenta metros cuadrados y una terraza de igual dimensión; y una terraza cubierta de cuatrocientos cincuenta metros de superficie que hace de tercer piso y tiene acceso por una escalera principal y sobre este tercer piso existe una azotea de igual superficie con acceso por la citada escalera exterior.

Esta finca es urbanísticamente una parcela mínima e indivisible.”

III.- PROMOTORA DEL GOYERRI, S.A.k, 2009ko uztailaren 8ko erregistro sarrera duen idatziaren bitartez, bere interesa azaldu du, aipatutako

errepartzelazio proiektutik ondorioztatutako 8. lursailaren lagapena eskritura publikoan formalizatzeko.

Horren odnorioz, Alkatetza honek egun indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz eta, Erregimen Lokaleko oinarriak erregulatzen dituen Legearen 21,1r) artikularen arabera, ondorengoa

EBAZTEN DU

Lehenik. Tolosako Jabetza Erregistroan 2048 Tomoan, 226 Liburuan, 78 Orrialdean inskribatuta dagoen 12.653 finkaren jabego-lagapena onartzea, 351.390 €tan baloratutako, erkidegoak hirigintzako ekintzan sortutako gainbalioetan parte hartzearen truke.

Bigarren. Alkate jaunari baimena ematea, dagokion eskritura publikoa sinatzeko.”

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamarrak eta erdietan amaitu da eta, nik idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.